

bolbora: lehergai gisa baliatzen den hauts berezia.

lauzkan: galopan, lauhazka.

Xibali : – Orain **bolbora** behar nuke... Lauzpabost kilo bolbora!

Artzaina : – Horra! Hemen duzu bolbora!

20

Xibali : – Orain, bolboraz beteko dut ardi larrua eta harpe zilora banoa.

Xibalik zaldia hartzen du eta badoa mendira buruz, herensugearen hiltzera.

Xibali (*irri maltzur batekin*): – Ardi hau jaten badu herensugeak, leher eta zapart eginen du eta hilen da.

25

Xexili : – Nora zoaz, Xibali? Nora zoaz?

Xibali : – Mendira abian nuzu, herensugearen hiltzera!

Zaldia **lauzkan** badoa eta denbora guti barne, horra Xibali, Azalegi mazelako harpe aitzinean.

30

Xibali (*bere gogoarekin, ardi larrua lurrean pausatuz*): – Hemen behar du herensugeak bizia galdu.

Xibali Altzai herrira itzultzen da.

Artzaina : – Zer da hori? Zer gertatzen da?

Xexili : – Xibali, Xibali! Zer gertatu da mendian?

35

Xibali (*goraki*): – Herensugeak jan duela ene ardia! Eta orain hiltzen ari dela!

Artzaina : – Kasu! Kasu! Herensugea heldu da menditik! Kasu!

Xexili : – Bazter zaitezte! Bazter! Sutan heldu da herensugea.

Herensugea : – Bidea libra! Erretzen ari naiz! Non dira errekek? Non ibaiak? Non itsasoak?

40

Jauzika Donibane-Garaziraino heldu zen herensugea. (*kantua: Kontrapas*).

Jauzika, punpaka, zapartaka Baionara.

Jauzika, punpaka, zapartaka, azkenean, Hendaiara.

45

Hendaiar bat : – Ama maite gaixoa! Zer da mamu itsusi hori?

Arrantzale bat : – Mamutzar itsusia! Hau hiretako duk! Hemen behar duk bai bizia galdu! (*bere arraunarekin emaiten dio*).

Herensugea itsasoan sartu zen, uhinetan murgildu eta emeki-emeki haren hiru buruak desagertu ziren...

50

Artzainak : – Eta orain, goazen denak dantzara!

(*Dantza*)

Ipuin herrikoia.